


BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
89n. ZENBAKIA  
IRAILLA  
1985



## **BERMEO'KO JIAK**

(7-16'ra, iraillean)

**ANDRA MARIAK ETA EUPEME DEUNA  
BERMEO'KO GURA DAUNA**

## BIZKARGI'KO SANTI-GURRUTZ

Nork ez daki Bizkaia'n ugari doguzala erririk geienetan basaelizak?

Ba'dira erriak, Dima lez, ogeitik gora dabezanak be, baiña, nai-ta beste askok gitxiago euki, ez da izango erririk Bizkai onetan, gitxienez beintzat, basaeleiza bat ez dauanik.

Orixe bai, euretariko asko oso gitxi ezagutzen diranak, baiña, bai guztiz aomentsuak diranak be banaka-banaka; esate baterako Bizkargi'ko Gurutze Deuna, Inguruetako biztanleak Santi Kurutze edo Gurutze esaten dautsoena.

Bizkargi, edozein bizkaitarrek dakian lez, Morga, Muxika, Zornotza eta Larrabetzua'n erdian aurkitzen da, lau erri orren muga lez aipatu dogun basaeleiza izanik, lau erri orreik bertan mugatutzen diralako.

Zoritxarrez, bertan izan genduban gudaketa zitalean, oso aomentsu egin zan Bizkargi, bertan izan ziran guda-burruka gogor da odoltsuakaitik eta, ori dalata izan ziran eriotza samingarriakaitik.

Gudaketa gogor orreik bide, basaeleizea be guztiz trizkatua izan zan, arri-moltso bat lurraz naztuta geratu arte.

Orixegaitik, iru urte expetxean egin ondoren barriz ain ondo ezagutzen genduan mendi orretara igon genduanean, ea ezin genduan ezagutu, guztiz trizkatuta aurkitzen zan basaeleiza ta mendi-gaillurra. Egun ortatik urte gitxira barriz jaso eben gaur-egun ikusiten dogun basatxonua.

\* \* \*

Bizkargi ta beren Gurutz Deunak, baiña, aintiziñatik eban aomen (fama) aundia, bear ba da Bizkai erdi-aldean aurkitzen dalako edo, iñon diran oztetzak, jentetzak bertara igonaz Orrilla'ren iruan, batez bere, eta urrengo igandean.

Lenago esan dogunez, aitatu doguzan lau erri orreik ziran basatxonu orren ardurea eukenak (ez daki-gu Etxano, beren burujabe izan zanean, eta Gorizika'k euki ba'eben eskubiderik), eta urtean orretariko erri batek eraldu bear izaten ebazan Guretz Deuna'ko meza ta jaiak, nai-ta iñoiz ikusi doguzan beste udalekoen batzuk euren apaiz da guzti igoten bere.

Aspaldiko urteotan zornotzatarrak izaten dira geien baten dana eralduten dabenak.

\* \* \*

Aurten be naita eguraldi kaxkarra egin, jentetza aundiak igon eban Orrillaren lenengo igandean eta, ez gazteak bakarrik, baita be urteetan pizkat goratuta aurkitzen diran ainbatek baiño, bertako basatxonu guztia notiñez beterik dala meza entzun eta laster baten jatsiteko, guztiz otzitu baiño len.

Gure gazte-aldian, ainbat geiago gaztetxu gintzazanean, gaztedi burrukalaria igoten zan Bizkargi'ko jai alai orretara eta, ez zan jai bat ospatzen ikubilkada ikeragarritzko eta, bai iñoiz edo bein, makillada gogorrezko burrukak ikusi barik.

Geien baten zornotzatarrak eta larrabetzutarrak izanik, nai ta noiz edo bein morgatarrak bere tarteko izaten ziran, geinetan neskak gaitik, naita eurak ez izan errudun.

Ori bai, aldi artan aurtengo orril edo maiatzean baiño beroago egiten eban eta, zatoari, boteari, sendo zakatuten yakolako Bizkargi'n beti ur gitxi izanik "egarria" kentzeko.

\* \* \*

Aspaldiko urteotan, zorionez! ezda olako asarrerik izaten, Bizkai'ko ikuspegi eder bat dogun mendi gomutagarri orretan.

Dana izaten da adizkidetasuna ta beraz alaitasun osasunduna euzko mendietako jolas geienetan izaten dogunez.

Orixegaitik nai gendukez indar-barritu mendietako eta goi-auzoetako jolasak euzko gaztediaren ondasungarri, iñoiz baiño bearitzen aundiagoan aurkitzen dalako gure gaztedia.

## BERMEO'KO JAIK

### UDEAREN AZKENEAN

Erri guztiak lez, Bermeo'k be bere jai-aldi pozgarria izaten dau eta jai-aldi ori artzeko sasoiu udearen azkena izaten da: Iraillaren 7'tik 16'ra.

Udaldian Bermeo'n giro ederra izaten da eta lan gogorra ez daukenak uda osoa be atsegiñezko aldi lez artzen dabe. Batzuk aldi orretan euren opor-egunak izateko erritik kanpora be joaten dira. Eta kanpokoak bertora etorri be bai, naizta udatiak emen ain ugariak izan ez, lan-erria dan ezkeru.

\* \* \*

### ERRI LANGILLEA

Bermeo, izatez eta oituraz, erri langillea da.

Langillea itxas-lanetan: milla ta bosteun inguru dira ur-gaiñeko lan ori egiten daben bermeotarrak, eta etxekoak orretara sartu ezkeru, zazpi milla inguru lan orretatik zuzen bizi diranak.

Lurgintzako lanean be ba-dabiltz bermeotarrak. Baserriak ugari ta nasaiak dira erri onetan eta non-saldu be izaten dan lez, gogotsu diardue irureun baserri inguru lantzen dabezan nekazariak.

Orrez gaiñera, salerosleak eta idazgo-lanetan diarduenak be ez gitxi.

\* \* \*

### ERRI ALAIA

Bermeo'tarrak erri alaia osotzen dabelako entzutea zabal dabil emen Bizkaia'n eta kanpoan.

Alan da izan be. Bermeotarrak alaiak dira, izatez eta urte guztian, baiña batez be jaietan, dantzari ta

zaratatsu agertzen diranean. Eta ori baiztatu nai dauana datorrela Bermeo'ra jaietarako.

\* \* \*

### ALMIKE

Jaien lenengo eguna Almike'n izaten da antxe dagoalako Bermeo'tarren Zaidari dan Ama'ren irudia ta eleizea. Ara joaten da ba, Udal-Batza jaiu asierea emoteko.

Almike toki ederra ta udarako egokia da eta bertan diran antziñako ikusgarriak egokitzen diranean, zer-ikusia be ugari izango da.

\* \* \*

### JOLAS-LEKUAK

Jaietarako batez be iru jolas-leku daukaz erriak: Lamera, Goiko Plaza ta Tala'ko Zugaztia.

Lamera da izatez jenterik geien batzen dauana, baiña zori txarrez uriolea izan zanetik (1983'ko dagonillaren 26'an) oraindiño barrizatze edo ber-egite lanean diardue. Jaietarako toki lez aske izango ei da.

Goiko plazea eda Sabin'en Plazea, etxez inguratuta, eleizea ta Udaletxea albo bitan dauzala, toki batua ta polita da jai-aldi batzutarako.

Talea baiño toki zoragarriagorik asko ez da izango Bizkaia'n. Emen Sukalki-eguna izaten da jai-egunik atsegingarriena.

\* \* \*

### EUPEME DEUNA

Azkenengo jai-eguna Eupeme Deuna izaten da (16'an). Eleizan eta inguruan jai-giro ederra.

Eta gero, barriro, bakoitxa bere lanera.

# LEGEA, EZ DA DANA

Lerro onein asmoa gogoketa batzuk egitea da: siñismen eta artzaiñ-lan ikuspegitik adituz.

Gizarte-arazo nabarmen onen sustraiak edo mamiak erpa zabal eta gordiñak izan leikez: aur-galtzea ondorengo edo ezaugarri dizdiratsu bat lez agertuaz.

Legegillea, etxura baten, ausarti eta biotz-bera, batera, agertzen jaku aur-galtzea dala-ta: Aurrez, baldintza bi jartzen dauz eta:

1. Ebakuntza osagille batek betetutea.
2. Emakumeak onartzea.

Baldintza bi oneik jazoten badira zigor barik izten dau iru gertaera edo jazoera onetan:

1. Umedun dagoanaren bizitza edo osasuna gaintzekotan.
2. Ertsamenduz umedun gelditzean baiña 12 aste betetu baiño len eta jazoera sasoiz salatuaz.
3. Umekeia gorputz edo gogoko utsen bategaz jaioko dala uste danean, era berean baldintza bi oneik be beteten direala:
  - 3.1. Ebakuntza 22 aste betetu baiño len egiñik.
  - 3.2. Iragarpena osagille bik —ebaketariaren-gandik ezbaridiñak— egiñaz.

Egia esan, gorago aitatu doguzan iru ertzeko gertaeretan, legeak zigor barik izteak ez dau gura esan aur-galtzea txarkeri bat ez danik.

Legegilleak ez dau ukatzen umekeiak, egiz eta benetan, bere eskubideak daukazanik. Au dala-ta, ez dago zertan eztabaidatu umekeia pertsona bat izan litzaken ala ez.

### ARAZOARI BENETAN ERANTZUN

Aur-galtzearen benetako ardatza, emakumea onetara bultzatzen dauan barru-arrazoian eta inguru eskas eta trabesak jartzen dautson eragiñ bizian dago.

Ez dago ganorazko ikerketa zeatzik aur-galtzera doazan emakumeen arrazoiak ezagutzeko. Alde batarako zein besterako arrazoiak puztu ta nabarmendu

egiten dira. Sakon-sakona ez dan begirakada baten aditurik, arrazoi orokor eta nagusi bi oartu leikez:

1. Emakumearen eta etxeko egoera estua, osasun makala, dirurik-eza.
2. Bizitzea era kaxkar batera artzea, norberekeria ta azalkeria oiñarri nagusi lez jarririk.

Egoki datorko gaurko gizarte oneri euskal esaera zarrak diñoana: “zenbat buru ainbat aburu”, au da, bizitzeari buruz eretxi guztiz ez-berdiñak aurkeztu geinkez.

Zer esanik be ez gizarte zillezkorrean bizi gareala onartzen badogu.

Legegilleak osoan oratu bear dautso arazo larri oni: umekeiaren, amaren eta etxekoen ona etenbarik billatzen aleginduz. Esku-artean daukazan era berezi guztiak trebetasun aundiz erabilliz, gizarte larri onetan ain premiñazko diran gizatasunaren aldeko jokatibide jator ta bizkorrak jarri bear dauz legegilleak:

1. Ama eskondugabeari laguntzea.
2. Gorputz edo gogo-utsen bat daukenen aldeko arauak legeztatzea.
3. Seksualitate-eziketa egoki bat eskeintzea.
4. Jaioketa-kopuruaren giza-arauketea, jaiotako edo jaioko diran semeenganako maitasuna eragiñaz eta ez jaioko leiken semearenganako bildurra.
5. Famili-eraketan, ama-ekondugabekoakaz eta emegaldukekaz lan egiten... dabilzananen erakundeak laguntzea e.a.

Legegilleak kontuan izan bearke leukez baita urrengo arazoak be:

1. Diru, etxe, lan-arazoak eta gazte-aroko berezitasunak.
2. Seksualitatea, ezkon-bizitza..., era baten, bizitza ez dala sakontasunez eta osotasunez artzen. Gaur azalkeria ta norberekeria dira nagusi: bestea ez da onartzen dan lez.

Gaur egun berbiztu nai dauan jokabidearen muiña da oraiñ arte esandakoa, erri-agintariak eurak be jokabide orren alde doazala diño.

## GIZA-BALOREEN BARBARTZADAK

Giza-balore batzuk salantzan jarri dira. Au ez da txantxetako gertaera bat. Aur-galtzea legezatu orduko —agertu doguzan iru gertaeretan— aitatu doguzan arazo nabarmen orrei bear dan giza-erantzuna emotea edo bear diran bideak jartzea, legegillearen zer egiñik beiñenatarikoa izan bear da.

Lege-kontua ariñegi doa: ez da egon, bear danlako ausnarketa zabal eta patxadazkoa egiteko astirik, ezta gizartea arazo onen ondorengo latz eta larriakaz konturatzeko eperik be. Ta au salatu-bearra dago arazo onen inguruan.

Erakunde askok diñoe ber-berau, baiña batez ere Eleizakoak. Oneik arazoaren garrantziagaz eta premiñagaz oarturik, ekiñean asi dira. Arazoa dagoan lekura jo dabe ta al daben guztia emoten dabe lanean; isillean, zaratarik barik, baiña ekiñean. Eta au guztia, esku-arteko ta laguntza gitxigaz.

Euron lan-onurea ez da arrokeriz zabaltzekoa; egia esan, ez dalako ikusgarria —neurri baten—. Baiña bide bat zabaldu dabe: galbidetik joan diran bizitza batzuk zuzenduz eta arazoan sartuta dagoan pertsona bakotxarengan maitasun-bidea bersortuaz. Au bai testigantzea arazo onetan lan egin nai dabeneztat. Era onetara asi ziran beste giza-ekintza asko ere: langilleena, bake-zaleena...

Txalotzekoa da bai, guraso ta famili askoren jokabidea. Nai-ta eragozpen asko izan gizonaren bizitzaren alde jokatzen dabelako. Onein lana ez da ikusten, baiña eurogan dago egizko gizatasuna ta eurogan azaltzen jako gizonari Jainkoaren maitasuna.

## NON OÑARRITZEN GARAN

Gorago esan danez, gizona gizarte zillezkor baten bizi da. Kristiñauak bere gizarte ber-beretan bizi bear dau Kristo'gan dauan siñismena.

Pertsona bakotxak bere bizitzeari egokien deritxon jokabidea jarri bear dautso. Gizona danez, alkar-tean: bere bizitza besteen bizikizunen argipean aztertuturik, erlejiño edo filosofi-bideren bat aukeratuaz.

Kristiñauak zabalik izan bear dau bizitzeari berak lako jobidea jarri ez dautsoenak azaltzen dabezan bizikizunei. Or be agertzen dalako Jesus. Nai-ta agirian ikusi ez, Jesus gizonen arteko artu-emonen gune-gunean dago. Kristo'ren zirikadea asmatu ez dauan gizonaren ekintza zuzen eta zintzoetan be nabaritzen da Jesus (G.S. 36 eta 38' gn. zb.).

Siñismendunak, sarritan, ez dau gura samaritar odolik ikutu, bada-azpadan loitu ez daiten. Kristiñauak, barriz, gizon lez, bere zeregiña dauko: ezin dau Jaikoak emon dautson askatasuna ukatu, ezin dau Jainkoa zirikatu ta berak egin bear dauana BERAK egin daian itxaron. Gizon guztiak jokatu bear dabe bizitzaren alde, Kristiñau danak eta ez danak, ezbardintasuna zerk bultzatzen dauan bako-txa izango da. Ez aztu kristau-alkarteak be zer-esan aundia daula onetan.

\* \* \*

Oraiñ arte esandako guztiagaitik, gizontasunaren alde doan bide bat bear da aur-galtzearen arazoari erantzuteko. Lan neketsua da baten: erakunde, pent-sabide asko zuzendu bear diralako, ta gaiñera sekula amaitzen ez dan zeregin bat dalako, gizona, gizona dan bitartean —beste arazo asko diran era berean: zuzentasunik-eza, bakerik-eza...—. Zabal-zabalean aditurik, ez legeak, ez aur-galtzearen arazoari aurpegi emoteko jarri diran bideak lagundu izan dabe giza-bizitza osotasunean ulertzeko ta arazo onek eskatzen dauan alkar-lanagaz oartzeko. Ba-dirudi, barriz, arazoa sustraiz oartu bearrean, legea egoera batzun aurrean norberaren burua zuritzeko egiña izan dala.

Baiña arazoa or dago ta or jarraituko dau. Geroago ta larriagoa izango da, ta erantzun egokiagoak eskatuko dauz, arazoa osotasunean oratuz. Eta au da, zoritxarrez, gaur-eguneko legearen utsik nabarmena.

ZABALO'TAR BALENDIN

## ITXASTARRAK (Augustin Zubikarai)

*Idazlea:* ZUBIKARAI'TAR AUGUSTIN

*Idazpurua:* ITXASTARRAK

*Elerti-Mota:* Elebarria

*Argitaldaria:* GAUBEKEA irarkola-Gernika

*Marrazlariak:* Azala: F. Beristain, barrukoak: P. Zubikarai

*Babeslea:* Euskerazaintza

*Urtea:* 1985

### AUGUSTIN ZUBIKARAI

Nork ez dau ezagutzen gaur Augustin Zubikarai idazle ugari ta jatorra?

Ba-dakigu gaurko gizarteak asti-aldien araoza dauana: Zar-sarituak geroago ta geiago dira eta lan-arloan egiten diran trebebidetako aurrearapenak geroago ta asti-aldi geiago itziko dauskue, lanerako orduak urrituz. Baiña olako orduak daukazen artean, batzuk zer egin ez dakiela geratzen dira eta beste batzuk erriaren eta gizartearen aldeko lanetara sartzen dira oso-osoan. Onein artekoa dogu gure Augustin: Izparringietan idazten, irratietan itz egiten, elertisariketara gogotsu sartzen, sariketetan epai-maiko izaten, jakintza-arloko ekiñaldiak eratzen, liburuak argitaratzen, batzarretara urreratzen, politikalanetan, agintaritze-arlotean eta non ez? sartuta bizi-bizi ikusten dogu, itxuraz zar-antzik izan ez arren zar-saritu dogun Augustin. Orrez gaiñera etxebizitzak guztioi emoten dauskuzan zeregiñak eta arazoak. Beste bere giroko batzuk euren "hobbi"ak edo asti-lanak naiz jolasak artzen dabez. Gure Zubikarai'k erribidetako lanetan jarraitzen dau iñoz baiño sendoago ta eginkorrago.

### AURTENGO ELEBARRI BAT

Urtean liburu bat baiño geiago ateraten dau idazle onek, aurten be bai, baiña oraingoz aurtengo bat artuko dogu aztertzeke: ITXASKARIAK. Berak diño liburu onen azalean elebarria dala eta ez da ori zalantzan jartekoa, naizta batzuk elebarri izen au arlo berezi baterako zaindu: Ba-dauz norki ondo zeaztuak, ba-dau alkar-izketa zeatza, ba-dau inguruaren zeazketa zorrotza ta garbia, ba-dau, baita, bear dan besteka luzeerea.

Laburragoa ba'litz ipuin-arloan sartuko genduke, baiña idaz-lan eder onek ondo irabazia dau "elebarri" izena.

### MARRAZKIAK

Gaurko elebarrietan marrazkiai garrantzi aundia emoten jake, gaur eskuetan artzen dan liburu doto-rea izatea, begientzat atsegingarri izatea nai dabe irakurleak, eta orregaitik liburuetako marrazkien arloa ondo zaindu-bearrekoa da.

Liburu onen marrazkiak oso egokiak eta ondo egiñak dira, naizta zuri-baltzez baiño ezin irarri. Ikaragarria da izan be margo bat baiño geiago sartu bear izan ezkeror irarkolako ordaingarriak izaten daben gorakadea. Azalekoa alde batera amabi marrazki daukaz liburuak. Ez dira asko eta geienak ez dauke ezelako idazkirik oiñean. Ondo izango zan marrazki bakoitxari bere oiña ipintea. Auxe izaten da liburutant geien irakurten dan zatia.

### ERAKUNDEA

Sarrerako olerkia ta atzeko aldeko aurkezpena alde batera, irarrutsak, iztegia ta aukibide egokia kontuan artu barik, Elebarriak berak zati bi daukaz, ondo berezituak. Lenengoa Simon bizi dan aldikoa. Auxe da elebarriaren zatirik onena ta arduratsuen jarraitzen dana. Zati onen azkenean amaitu zeitekean elebarria eta ondo geratuko zan. Bigarrena makalagoa da eta ez dauko ari ain bizia, naizta antropoloji edo giza-iztiaren ikuspegitik irakurgarria izan.

Jakiña da, idazterako arau-emoilleak antxiñatik esan daben lez, elebarriak iru une izaten dauzala: Aurkezpena, korapilloa ta azken-urtenbidea. Aurkezpena egiteko era bi erabilten dira batez be: Jazokizun batzuren bidez agertu norkiak nortzuk eta zelakoak diran edo zuzenean euren zeaztasunak agertu. Bigarren au erti-bidean makalagoa dala esan lei, trebetasun gitxiago agertzen dau. Auguztin'ek era biak agertzen dauz. Obeto izango zan, bear ba'da lenengoa bakarrik erabiltea, norkia zelakoa dan, idazleak esan barik, jazokizun batzun bidez irakurle zurrak atera dagiala.

## ALDIA

Gaurko idazleak trebetasun aundia agertzen dabe ipuiñetan eta elebarrietan aldia erabiltean: Atzeratu, aurreratu, luzatu, laburtu... Augustin'ek be onetan bere trebetasuna darabil. Errez ikusiko dau irakurleak batzutan epe laburrean gauza asko jazoten dirala, beste batzutan ostera epe luzea, garrantzi bakoa dalako-edo, jazokizun gitxigaz labur lez geratzen da. Peru'ren eriotzea esaterako aldi laburra izan arren luze agertzen da. Ba-dago iñoz gogo-bideko epea be, epe labur-laburrean jazokizun asko sartzen dirala. Eleberri osoaren aldia ez da agertzen nabarmen, ez da erreza jakitea olako jazokizunak noizkoak diran, gudaldiagaz dauken zer-ikusia zur begiratu ezik.

## TOKIA

Eleberriaren tokia itxia da, "realismo" giroko elebarrietan sarritan jazoten dan lez. Ondardi, erri biztanlez ugaria izan arren, lutelesti-aldeetik estua da eta jazokizunik geienak or sartzen dira.

## NORKIAK

Banakako norkiak, batzuk oso ondo zeaztuak dira: Simon, Peru, Mikol, Idurre, Iñese, umeak... eta abadea.

Beste batzuk talde-norkiak dira: kofradia esaterako, au be ondo zeaztua. Eta andrak talde lez eta iraulketa-lanean agertzen diranean. Oneik be ondo.

## EUSKERIA

Iñoz entzuten dogu Bizkai'ko euskerea batu barik dagoala, ez dagoala bizkaierarik, tokian tokiko izkerak baiño. Nik au esango neuke: Augustin'en euskerea, orixe da bizkaiera, bizkaiera batua. Baiña ez gero berak bakarrik orrelan idazten daualako, Bizkai'ko idazlerik geienak darabilen bidea ondo zaintzen daualako baiño. Eta euskera au ulerterreza da, ez Bizkaia'n bakarrik, Gipuzkoa'n be bai.

Ez da Ondarroa'ko euskerea, naizta ango berezitasun batzuk izan or: iztegian, abostegi edo fonetikan, esaldietan eta abar.

Onetan, oartxu bat bai egingo neuke, noizean bein *daben* adizkia ta antzekoak batenean eta askorenean ondo berezitu barik agertzen dira: Gizon batek egi *daben* lana/gizon batzuk egin *daben* lana, ezarten dot adibide lez. Gizon betek egin *dauan* eta gizon batzuk egin *daben* izan bear leuke. (Nauen/Naben).

Eta dua doa'ren ordez (14n. orr.), arrua/arroa, guaz/goaz (15n. orr.) eta olakoak... bideratu bear leitekez.

Bizkaieran itz arrotzak diranak be nik ez neukez sartuko: esaterako "bortitza" (25n. orr.).

## ALKAR-IZKETEAK

Elebarrietan garrantzi aundia izaten dau alkar-izketeak eta Augustin'en alkar-izketeak ba-daukaz bere berezitasunak.

Guztiok dakigu idazle au esaldi laburren laguna dala, idatzia ulerterreza izan daiten bear ba da. Augustin Euskaldunen "Azorin" dala onetan esango neuke-erabilten dauzan gaiak ezbaridiñak ez ba'litzaz.

Eta berezitasun ori be agertzen da elebarri onen alkar-izketan: Esaldiak labur-laburrak, argiak eta zorrotzak dira, naizta arreta aundiaz irakurri ezean, noizean bein esaldia zein esalereana dan jakitea erreza izan ez.

Peru zarrak bere emaztearen aurrean daukana eder-ederra da (212n. orrialdean).

\* \* \*

Orra or gure elertirako idaz-lan eder bat, polita, zeatza, erri-girokoa, arrantzaleen bititza agertzeko egokia ta jatorra... errez irakurtekoa... ordu batzuk atsegintsu igaroteko erea emoten dauana.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

## ITXASTARRAK

ELEBERRIA



Augustin Zubikarai

## EZ IÑORENTZAT OPA IZAN, ZURETZAT GURA EZTOZUNA

Aldi luzerik ez dala ondiño, Bilbo'ko Udalak, Bilbo'ko udaletxean sartzeko diran langille barri guztientzat, baldintz barri batzuk baieztu ebazan eta, euren artean, euzkaldun diranei, euneko lau edo lau terdi puntuen alde emotea erabaki eban. Eta au, edozein buru-gogor ez dan batentzat, sano txalotuteko erabaki bat zan.

Baña, Euskadi (zergaitik idazten da EUSKADI, Euzko Jeltzalea'ren egunkari edo izparingijetan?) erri txiki ta ez aini ondo alkartu bat dan ezkeror... orra or, ba..., jazo bear zana, gertau zan.

Eztakit ba emeko euzko (?) seme bat izan ete zan "erbija atara" ebana, Bilbo'ko udaletxerako leiaketa bat jakin-arazi zanean. Eta, jakiña, gure errian geienetan jazoten dana, jazoera onetan be, gertau zan. Madrid'eko Lantegi Maisu edo Ingenieru Batzordean barri au jakin ebeanean, España'ko Goieneko Auzitegian ipiñi eben, eta, jzelan ez!, ondorea... Bilbo'ko Udala'ren aurka epaitu zan.

Gizon burubako edo oker banakaren batek izan ezik, edozeñek daki Ludi onetan, "ERROMAN ZAGOZANEAN, ERROMATARRAK EGITEN DABENA EGIN BEAR DOZULA" baña, zoritxarrez, Euskadi'n ez da ori jazoten eta, orain arte ikusten dogunagaitik, Euzkadi'ri jazoten jakona, Bizkaia'ri be jazoten jako.

Jakiña, E.B.B.'eko Euskararen Batzorde Eragileak, Madrid'eko erabagia jakin dauenean, barren-barrenetik erakusten dau bere samintasuna ta, niretzat be, "ori" ez da besterik gorrotoa erakutsi ta euzkotarren eskubideak lotu ta zapaldu gura egitea baño.

Egia esan, atzerakada andia ikusten dot Madrid'ek, arazo onetan artu dauan erabakiagaz, ortxe ikusten dodalako euzkerarentzat agertzen jakun galbide zabal-zabal bat.

Baña, zer itxaron bear dogu iñoz gauz onik etorri ez jakun leku batetik? Ni enaz gaurkoa ta andik, ortik eta emendik ainbat zaplada edo belarriondoko eta ostikada artzen oituta edo ginda nago.

Ostikadak andik datozenean... ba... andik ezin dogula gauza onik itxaron eta, ia ia, egin gara ango astakeriak irunsi ta, gure betiko bideetan, aurrera jarraitzen. Ainbat urteetan an, or eta emen jo ta ke ibilli gara gure erria ta euzkerea aurrera atarako doguzelakoan.

Baña..., ango eginkizunei jaramonik egin ez eta goazen orko ta emeko jazoera batzuk aztertzen.

An, Euskadi'ko Euskara oinpetu gura ba dabe, or eta emen Bizkai'ko Euzkerea il-zorian ipiñi dauskue. Eta auxe da niretzat lotzagariago. Angoak, bear bada, gure etsaiak izan leitekez eta arerio bategandik mezede bat lortzea ez da sarritan jazoten dana. Baña Bizkai'ko euzkerek, aspaldian, Madrid'etik baño emendik izan dauz adarkadarik sendoenak.

Euskara'rik andik datorkiona, Euzkerea'ri, Bizkai'ko Euzkerea'ri beintzat, ortik eta emendik jatorko.

Bizkai'tar euzkaldunak, ementxe, Bizkaia'n, gure lur maite zatitxu onetan, beste euzkaldun batzuen abotik entzun bear izan dogu: "BAI, ZUK EUZKERA POLITA TA JATORRA EGITEN DOZU, BAÑA, GURETZAT EUSKAL TELEBISTA, IRRATI, EGUNKARI TA EUSKAL INSTITUZINOETAN, EZ DAU BALIORIK". Au, Bizkai'an eta Bizkai'tar bateri jazorikoa, lotzagarrizkoa bada be, egi-egija be ba da. Iñoz jazo jaku, egunkari baten bitartez Jaurilaritza'ko dei bat zala ta nik idatzi ta erantzunik ez eukitea. Eta, zoritxarrez, eginkizun oneik euren buruak Bizkai'tartzat daikiezenen aldetik izan dira gaienetan.

Bizkai'ko batzoki baten zabalkunde egunean, neuk entzun neban, Sabiñ'en irakaskintzen zabaltzalle baten abotik: "Ete dauka zer ikusi andirik "H" bat edo bi gure euskararen sartzeak, gure artean darabilguzan eztabaidetan jarraitzeko?"

Oraintzu euki dodaz eskuartean ainbat 1937 urteko egunkari ezbarriñak: El Liberal, La Gaceta, La Tarde, Tierra Vasca, Euskadi eta abar. Euretariko baten be ez neban ikusi Euskadi idatzita, Euskadi baño. Lendakari idazten eben guztiok eta ez Lehendakari. Eta euzkerarik zabaltzen eben izparringietan etzan "H"rik ikusten, baña bai "LL" ta "N" asko. Gaurko *euskaldun modernoak* "H" ez egoan lekuetan, ainbat sartu dabez eta "Ñ" ta "LL" egon ziren lekuetatik kendu ta "Ñ" ta "L" euren lekuetan jarri ta askoz geiago ez dabe egin. Batzuk "ori" ontzat artu eta ixeldu ba dira be, nire ustea beste alde batek dabil.

Gaur arte, eta batzarretan ontzat artu dan lez, E.A.J. Sabin'en jarraitzalle lez agiri da ta ni, bere ikasle bat nazan ezkeror, baragandik ikasi nebazen irakasbideei jarraitzen dauset. Iñoz, gure alderdiak ikurritz au aldatzea erabagiten ba dau, orduan ikusi bearko dogu zer egin. Baña, bitartean, nik, Sabiñ'en jarraitzalle zintzo bat lez jarraituko dot berak irakatsi eustanari jarraituz.



Ba dogu Bizkai'tar garenok begiak zabaldu ta nora begitu ba, an, or eta emen zer ikusi asko dogu.

Gugaz bakean bizi eta alkarren eskutik bearrean datozenei, ONDO ETORRIA EMONGO DAUTSEGU, baña, gure ganean lotzeko asmoagaz etorri ta gu zapaldu guraz datozenei: GU EMEN BAKE BAKEAN ITXI TA, MEZEDEZ, ETORRI DIRAN ERRIETARA ITSULTEKO ESAN BEARKO ETE DAUTSEGU?

Eta Bizkai'an jaio, emen bizi ta emengo euskerea'ren alde ez dagozenei, zer egin? Ba, nik beintzat, apurtxu baten itxaron eta jakingo dodala zer egin uste dot.

KEPA

### ONGURA MAITEZ

Abes dagit bai, mendi ta ibarrez,  
bizia deskan erri zaar maitearen  
ta, bere berbetearen gorasarez  
indar barritu dagigun bein baten.

Abes dagit ta, biotzez, sugarretan  
egarritua nabil aren zoriz,  
aren izate ardurapenetan  
kezkatuta biotzeko Euskalerriz.

Abes dagit bai abes, gogo onez,  
ta, gora dagit abots maitagarritz  
euskerearen aldezko gorapenez  
neure gogo, biotz osoa jarritz.

Abes dagit abes, euri ederraz  
asegarrizko tanta gozagarriz  
abes dagit maiatzeko lorakaz  
usai gozodun aize egaztariz.

Abes dagit euskerea senda dedin  
bizi izanik betiraunez, alai,  
udabarri eder goituena bezin  
eder ta maitasunezko bizigai.

Etengabeko ekin ta ametsez  
neurtizetan ene biotza ixuriz  
arenganako ongura maitez  
abes dagit zorioneko egarriz.

MUNIATEGI-TAR SABIN  
Donosti 1985-IV-18

### ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar .....

..... kalem (auzoan) ..... zenbakian

..... errian, ..... errialdean (probintzian)

Arpidetzea ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordaintxartela, an daukadan ..... zenbakidun diru-kontura.

## B. GANDIAGA, OLERKARI

### Giza-seme

Euskalerriko bazter ezkuak, gizaldiak zear, euren frutua emon dabe. Lur emokorrak alakoxe laborea ekarten. Baita Gernika'tik ur-samar, mendi-kate gaiñean txairo ta lirain daukagun Mendata'k be. Gaiñez, soloz ta basartez ingurutatako erri aizetsu au or daukagu beti alai ta langille.

Ementxe jaio zan Gandiaga olerkaria, Aita frantziskotarra, bere bizitza guztia Arantzazu'n daroana, 1928'ko urrillaren 8'an, Orbelaun baserrian. Ume-egunak bere errian igarorik, 1940'an Arantzazu'ra doa. Lekaide izan nai dau. Arantzazu, Foru, Zarautz ta Olite'n osotzen ditu bere eliz-ikasteak. Ondoren Kristoren zerbitzari leial izateko 1954'an Gotzaiñaren esku-ezarte ta orio-igurtziz sagaraturik, arrezkero guztian Arantzazu'n lan dagi, gazteen irakasle.

Arantzazu'ko bakartadean —bakartadea ete da gaur?— bizi da mendatarra. Begiko jakoz ango mendiak eta trokak. Eder jako Urbia, ango ardi ta artzaiñakaz; Aizkorri eder jako bere arkaitz irauli zuri-urdiñakaz; eder goi ta bee, ango edur ta trumoi otsakaz. Atsegin jakoz gazteen biurrikeriak eta Ama Birjiñaren eliz-eresi ta kantuak; atsegin jakoz inguruko artzaiñak eta baserritarrak, zaar, gazte naiz umeak. Atsegin baita birako zaartxoan euskal esaera ta ipuiñak, sorgin eta lamiñem negar-erostak.

Noizik-bein, ezkutu aretatik urtenda, errietako apaizai lagundu oi dautse arima zaintzen autortu ta Jainkoaren itza otsegiñez. Eta andik atera dauan zeregiña amaitu ostein, barriro doa bere bakartegira, urriñeko ibiltaldia burutu ondoren bere arkaitz-kabira biurtu oi dan arrano egalariaren pareko.

Eta betiko lanari josirik, ortxe bizi da pozik, Jainkoaz eta Onek mende ipiñi dautsozan giza-sorkariakaz. Olerkari bait da, eta olerkiak, ots, mendi arteko ixiltasunak erakarri ta zorarazten. Nun gizona ondoen? Barru-deiak intziri dagitson lekuan.

Maite dau erria, euskal erria, bere sort-erria. Biotz-osiñean daroa, amak ezarria, erriarenganako maite-sua. Bakar samar bizita be, mendi-zut malkarttsu erdian, aspaldi dala sua ta argia ixuri oi dauz Arantzazu'tik, aste-uneetan bere erriaren aldeko oler-

ki sotillak ondurik. Bai, itz-neurtu biziak, samurrak idazten ditu, erriarenganako suak eraginda.

Onela diño berak:

“Kezkatzen bait nau  
herstutzeraino  
neure Herriaren  
zoriak.

Hautsiak ditu  
araunak eta  
arrakak ditu  
ontziak.”

Erriak ikutua dabil biotz-biotzean, eta mindua. Orrela ba'lebil euskaldun jentea osorik, ez giñake izango ain barregarri. Ez legoke, ez, gure askatasuna orren murriztua. Ezta gure euskera be, orren itxia ta marroiza!

### Olerkari

Eta idatzi egiten dau Gandiaga'k bere erria itxartu daiten. Euskal lanak, olerkiak bialtzen ditu “Arantzazu”, “Euzko-Gogoa”, “Egan”, “Oleri” ta olako aldizkarietara. Sariak eskuratzen daukuz, Zarautz'en lenengoa, 1954'ko abustuaren 8'an, bere olerki **Region Lore** deritxonarekin. Orobat dagi, 1956'an, Arantzazu'ko konkurtsoan, **Elorriko Lorak** lanarekin; bardin, 1959'an be, bigarren saria lortzen dau Bedoña'n **Lelo Isamurrak** lanarekin. Ondoren bere poema “Elorri” argitaratzen dauku, beronegaz “Jose Antonio saria” jasorik, 1963'an. Urrengo urtean “Oleri” saria eskuratu eban.

Dagoneko lau olerki-luburu argitaratu daukuz Gandiaga'k: 1) **Elorri** (1962); 2) **Iru gizon bakarka** (1974); 3) **Uda batez Madrilen** (1977), eta 4) **Denbora galdu alde** (1985). Liburu txikiak dira, Elorri'z kanpo, baiña poeta gailen bezela agertzen dabe askotxok. Astitsu ta zorrotz onduak dira Gandiaga'ren lanak.

Edozek dar-dar ipinten dau olerkariren barrua. Nun-nai daurki Gandiaga'k poesirako gai sotilla. Ona au: Urbia'ra igon da, ta beerunzkoan pago azpian, orbelpean, uraren ots meeaz oartu da. Eta ederki asko biribiltzen ditu zortzi estrofa aurkitu dauan ur-

-zintz zarata gitxikoari eskeiñiak. Ona leenengo biak:

“Menditik dator erreka,  
dolmenak ditun menditik;  
menditik behera, korrika;  
menditik haren uherka  
iturritik itsasora.

Menditik dator erreka:  
udan geldiro jeisten da,  
itzaletik itzalera,  
giro gozoz apalduta,  
erreka danentz ahaztuta.”

Esana dot gorago: lan txikiak eder jakoz Gandiaga’ri. Baiña pentsamentuz beteak; orrela egin oi dau Parnaso’rako bidean goi-samar dabillen koplariak. Mendatarrak ez dau itzik, ez abotsik, ez kitarrarik. Ba’leuko be, ez daki joten, ez dau musikarik... Zer egingo ete? Naia bakarrik dauan arren, nai orreri lotuko...

“Hitz urri batzuk  
dauzkat bakarrik,  
ta abots kraskatu bat.  
Ta neure urrian,  
ez dut kitarrarik.

Ta kantatzekoan,  
abots kraskatu bat  
daukat ahoan.  
Ta, neure urrian,  
kantatzen ez dakit.

Ta, baneuka ere,  
jotzen ez bait dakit,  
alferriko nuke.  
Ta, neure urrian,  
ez dut musikarik.

Ta, ezer ez dakit,  
ta ezer ez daukat,  
neure herria baizik.  
Ta, neure urrian,  
ez dut neure, kausik.”

Alan be abestu barik ezin etsi. Ta bere urrian, kantari diardu, naiz-ta bear bada, alperrik. Orrelaxe dogu Gandiaga, pozak, naiak, esperantzak eta atsipenak gaintua. Olerkariak kezka bat dau barruan, biotza zauritzen dautsona.

Arrasti baten, Arantzazu’tik Oñati’ra datorrela, motozerraren ots zurruna entzuten dau bide azpian. Urrumaka diardu burdiñeak, katamotzak baiño arima motzagoa dauanak; aritz-tantaiari eldu ta, erpaz ta aoz, rra-rra beera botatzen dau. Eta Euskalerria datorkio beingoan gogora olerkariari, eta idazten dausku:

“Telebista dugu motozerra,  
eguneroko prensa ta zinema  
ta radioa ere motozerra,  
eta, eta.  
Haritzak bezala  
euskaldunak, eta  
hariztiekin bezala  
euskal herriak,  
motozerrak, rra, rra,

burnizko urruma  
urruka dariola,  
Herri euskalduna  
ebaki darama.  
Baina motozerra  
ez da erru gutzia  
bere gain duena.”

Onakoxea dozu B. Gandiaga’ren olerki-lana, txikia ta mamintsua, irudikizun xarmantez josia. Gaurko poesiak ez ei dau bear musikarik, ez barne-igierarik, ritmurik: olakorik bakoia dala dirudi bere olerkia. Baiña azalekorik ainbeste ez ba’dau be, barnekoa bearko. Poesia ezta itza bakarrik, baita musika ta ritmu be; eta au nai ezpada gaur, beste zerbaitekin utsune ori bete bear. Bestela gaurko musika pop antzera, iskanbil utsa besterik ez jatzu izango gure euskal poesia.

AITA ONAINDIA

# EUSKERAZKO SENDA-JAKINDI IZEN-SAILLA (AZTERBIDEZ SAIAKETA)

*Idazlea:* Bizkai'ko Sendalari "EUSKERA TALDEA"

*Laguntzailleak:* ARABA eta BIZKAI'ko FORU-ALDUNDIak  
BILBO ta BIZKAI'ko AURREZKI-KUTXAK (Kultura-Sailak)

*Urtea:* 1984 udabarrian, 1985.

*Zuzendaria:* Jon ALBERDI ZILUAGA

*Lankideak:* Francisco ITURRIAGA ETXEARRIA (Kimi-zalea ta osagai-saltzaillea)  
Jon HORMAZA BILBAO  
Bizente ONDARRA AZURMENDI  
Ricardo URIARTE RIO

*Irarkola:* Ellacuria LAB S. A.

Ona emen gure osagilleak euskerearen alde egiten daben lan sakon bat: Erabilten dabezana itz trebebidekoak eta sarritan irakurle zeientzat ulergaitzak euskeratu, iztegia eta euskerazko itzen azalpena egiñez.

Orain urte batzuk, 1982'an argitaratu eben A-B izkiai dagokien zerrendea eta orain C izkiari dagokiona eskuratu dogu. Asko poztuten gara arlo au aurrea eroateaz eta lan onetan lankide diran guztiai eskerak emon eta zoriona opa datsegu.

Lenengoaren antzera, ale onek be itzaurretzu bat daroa. Lenengo alean bizkaieraz eta H barik etorren, oraingo au gipuzkoereagaz nastauta eta H batzuk be sartuta datorku, eta lengoa baiña zerbait oler-gaitxago dirudi.

Baiña liburuaren lana, itutzaille-lana da, lan aundia benetan eta ez egiteko erreza: Lenengo, jatorria ondo ulertu bear da, geienetan gerkerazko itzak aztertuta eta gero euskerazko itz egokiak aurkitu eta osotu eta onein jatorria azaldu. Azkenean datorren iztegi laburra be, oso egokia da.

Nire ustez itz batzutan erreztasunera geiago jo bear zan. Adibidez: Erderazko "Huesecillo" (ikus "cadena" itzean) onelan euskeratzen da: *Exurxkadi*. Berba au ez da erreza iruntziteko, bai ostera *azurtxutegia* esan ba'litz edo gipuzkoeraz izan bear ba'dau *ezurtxotegia*, bizkaitarrak be errez ulertzekoa. Giputzak z geiegi aldatzen dabe x eta ez leiteke biurtu bear maitasun edo txikitasuna agertzeko baiño eta emen txikitasuna *xka* orregaz agertzen zan.

Baiña zertarako begiratu obetu leitekezan arazo txiki oneik? Bein eta barrero esan bear dot lan aundia ta txalogarria dala, naizta danean neuri atsegin izan ez. Zoriona barrero eta eskerrik beroenak!

OLAZAR'TAR MARTIN'EK



BIZKAI'ko SENDALARI "EUSKERA TALDEA"  
"EUSKERA TALDEA" DE MEDICOS VIZCAINOS

## LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (VI)

Igande ta jaietako meza kontu ori kenduta, iñora ez genduan urteten Mariasse'tik. Baten Morsen'era joan giñala gomutaten naz eta gaberdian biurtu, ala-olako bideetan zear. Baltzeoan ekianak, neskakaz orixe apur bat egin (guk orixe be ez genkian) eta ardaupurra edan.

Beste baten, basoan egoan ardandegi batera joan giñan. Bi edo iru kilometroko bidea egongo zan bertara. Ango jenderik geiena, emendik joandako piñuetan geniar-  
duan gazteak giñan. Ta bertan, bertsolariak (¿) zirala ta ez zirala, asarre bat izan neban.

Gu lez piñu ebagiten ebillen errederiar sasi-bertsolari bat ba-zan an inguruan: Ardandegi zuloa maite ebana ta biurri samarra zan gazte sudur motza. Beste sasi-bertsolari bat be ba-zan an, irurogetamar urte inguru izango zituan agurea.

A ez zan gudea zala-ta joandakoa, urte askoan an egoana baiño. Ta bertsoak botaten asi ziran; batek lenengo ta gero besteak erantzun. Ta bertsolariak beti eukiten daben besteari geiago egiteko griña orregaz bidebakokeria zarrari arpegira jaurti eutsan gazteak. Itxurea zanez, orduan urtetsua zan arek zerbait oker egin eban emen eta alantxe ara iges egin. Eta gazteak, ez bat eta ez bi, orixe aitatu eban danon aurrean eta lotsatuta buruz bera laga zarra.

Orduan, neu jagi nintzan, orretarako eskubiderik ez egoala esaten, agure batek ori baiño begiramen geiago bear ebala-ta. Ta txakur amorratuaren gisan urten eusten gaztearen lagunak, eta aguro ixildu bear izan neban, jango ez baninduen.

Bertsoetan edozer esateko eskubidea egoala uste dabeenetarikoak ziran kirten areik be. Guda aurretik arpegiz ezagutzen neban mutrikuar bat egoan euren artean, eta bera izan zan txarrena.

Mariasse'koak ondo konpontzen giñan alkarregaz. Naikoa abestuten genduan, geiena erderaz. Baiña bein, bost-sei laguneko aldra nastatzaille bat etorri zan. Euren artean, matxinatea zala-ta Kuba'tik iges egindako, bilbotarra zala esaten eban bat. Taldeko burua zirudian. ¡Lanera-ko baiño politika nasteetan ibilteko ohea zan a!

Jakiña, aldra aretan be, danak ez ziran lotsabakoak. Amazortzi urte inguruko bermeotar gazte bat be, euren artekoa zan: Garteizidar Florentzio. Geroago, Itxasu'ko Etxedoia'n alkarregaz egon giñan eta lagun egin neban gazte a.

Bein, gaberdian, ikaragarritzko zalaparta ataraten sartu zan Mariass'en aldra a. Ardandegitik etozan eta geie-

nak apur bat mozkortuta. ¡Ba-zan abestia ta didar otsa! Danok esnatu ginduezan; eta Pasaia'n bizi zan galizitar bat jagi zan, orretarako eskubiderik ez egoala ta ixiltzeko esaten. ¡Esan ba eban, esan eban! Bilbotar a asarratu zan eta egundoko eztabaidea euki eben. Aitzoz sabela iragiko eutsala esan eutsan Kuba'tik etorritakoak besteari ta azkenen burua makurtu bear izan eban galizitarrak.

Egia esateko, gu besteok, ez genduan gizon jokatu; galizitarraren alde arpegi emon bear genduan. Baiña iñok ez eban txistik atara. Eta bear bada, obe izan zan igaro zan lez igarotea; bestelan odola be ixuri eitekean.

Gabonak urreratzen etozan eta Ziburu'ra biurtzeko gogoia egin jakun. Geure etxetik kanpora bigarren Gabonak ziran, eta orduan osaba Donato'nekoa zan gure etxea, eta egun ori geure guraso ta anai-arrebakaz egin eziñean, senideakaz igarotea be atsegiña zan. Ta an joan giñan iru lengusuok Ziburu'ra. Mariasse'ko euskaldunen artean, geu izan giñan bakarrik zori ori izan ebenak.

Gabonak igaro ta barriro piñuetara joaten, tokiz aldatzea izan genduan. Lengo nagusiak, lan gitxi izan-edo, lau lagunok eta beste batzuk, guztira amar-amabi, beste nagusi bateri aldatu ginduzan. Nagusi barriak berak eroan ginduzan Girona erkira, Bouridens auzora. Beronen inguruan ezkerretara ta eskumatara, erri bi egozan: Saint Siphorien eta Villandrau, ta biotatik bateri egokion auzoa izango zala uste dot.

Aldaketa au mesedegarria izan jakun. Oraingoan ez ziran piñu erreak eta len baiño garbiago ibilli geintekozan. Gaiñera, auzotxo baiño ez bazan be, errian bizi giñan. Gaiñerontzean, lengo bizitza berbera geroan: Ala olako etxe bat ainbat gazteren bizilekua ta lasto gaiñea lo egiteko.

Janari denda bat, dantza aretoa ta elizatxo bat egozan. Dantza aretoa zan erriko etxerik politena, barria zan da. Igande ta jai illuntzeetan bertan batzen zan erri edo auzo guztia; gazteak, dantzan egiteko ta nagusiak, kontuak esan eta dantzan ziarduenai begira egoteko.

Ez dakit ordaindu bear zan ala ez, sartzeko; baiña bein bakarrik sartu nintzan bertan, dantzan ez nekian da. Guk (neuk ez esatearren) euskal dantzea egiteko oiñak erabilten ederto ikasi genduan, baiña ogetiru urte gaiñean genduzala gudea zala-ta erritik iges egin genduan, egundo neskeari oratu barik gengozan baltzeoa egiteko. Errezoi bi genduzan orretarako: Musika jotzaille nintzan eta aukera gitxi geunkan dantza loturako ta batez be euskaldun nortasuna illundu eikean ezertxo be ez gendualako nai.

## GUDALDIA

Neurri orretaraiñoko abertzalea nintzan. Bai berba egiten, bai idazten, bai abestuten, bai dantzaz, ta bai beste edozetan, euskaldun uts-utsa. Gero, geure girotik aldatu giñanean, zerbait nastau nintzan dantza kontuan, baiña beti be gitxi.

Kapillatxoa zan ango elizea, baiña naikoa ta geiegi auzo aretarako. Gu Bouridens'era joan eta aldi baten itxita egon zan, igande ta jaietan be mezarik emon barik eta Saint Sinphorien'era joaten giñan mezarara. Jakiña, txirringan. Geroago asi ziran bertan mezea emoten jai eguntan. Ta ara be geu lau lagunok bakarrik joaten giñan eta prantzaz batzuk, geienak emakumeak.

Ezagun eban eliza arek gitxi iragiten zana; ikaragarriko busti usaiña artzen zan.

Ebagi bear genduzan piñu saillak, baten emen eta bes-tean an, geienetan iru-lau kilometroko bidean egozan. Beraz, bearrekoa genduan txirringa, bizikleta. Gaiñera Prantzia'n bizi ta mutil gazteak txirringa barik egotea, oi ez zan gauzea zan an, eta zar bana erosi genduan. Berreun eta zerbait geiago ordaindu neban neurea. Teodoro'k eta nik ordurarte ez genkian txirringan ibiltzen eta ikasi egin bear izan genduan.

Orixe izan zan, iru urte luzean Prantzia'n egin genduan onerako guztia, txirringan ikasi.

Erriz aldatu giñan udabarrian, Captieux errian piñu batzuk eukazan nagusiak eta ea areik jaurtitera joango giñan itaundu euskun geuri lau lagunoi. Nai izatera, eguneko aloger izentau bategaz lan egingo genduala. Ogetamabost libera zirala uste dot egunekoa, edo geienez berrogei. Ta berak arkituko euskula ostatua.

Baietza emon geuntsan. Asko ez genduan irabaziko, baiña erosoago biziko giñan. Errian biziko giñan eta oean lo egingo genduan beintzat. Bouridens, zortzi-amar etxeko auzoa zan eta beste erria, bi edo iru milla biztanlekoa. Ta an joan giñan.

An ez geunkan eguzkiaren aurka lan egiterik. Egia, pagotxik be ez genduan jango; gaiñera, oraingo piñuak andiak ziran eta orregatik astunago egiten jakun eurak ebagitea.

Lanera, arlote antzera-edo jantzita joaten giñan; beintzat baten, erria igarotzean, neska gazte batzuk guri begiratuta euren artean zerbait esanaz, barrez asi ziran. Niri bardin jatan, areik guzaz barrez edo negarrez ikusi. Baiña Teodoro lotsatu-edo egin zan; beintzat ordutik aurrera laneko galtza zarrak mendian laga ta kalekoakaz errira biurtzen zan. Besteok, len lez.

Ango konturik politena (zer edo zelan esatearren) jan kontua zan. Ardandegi baten egon giñan ostatur. Goizean jagitean, baso txiki bat akeita baltza paittar kopa bategaz emoten euskuen. Gero, jaki apurra ipinten euskuen baso-

rako, amarretakoa; geienetan, foegras latatxo bat ogi ta ardaugaz.

Eguerdian izaten ziran kontuak, ardandegian bertan bazkaltzean. Bazkaria, beti bardiña izaten zan: Zukua ta okela tato batzuk saltzan. Dana be gitxi. Naibeste ogi izan ezkerok, pozik izaten giñan. Beste jatekorik, au da, saltzako okelarik ezin geinkean geiako eskatu; baiña ogia, edonun eskatzen da bear izan ezkerok. Alan be, plateroko saltzea amaituta gero eskatzea, ez zan itxurazko gauzea. Ez euskuen zatituta emoten ogia, zati andi bat danontzat baiño, bear genduan artu gengian. Orregatik asieran txikiago ekarri eigula nai izaten genduan, gero geiago eskatzeko. Danok ikasi genduan ogia eskatzen:

“Un peu du pain s'il vous plait.”

Baiña, ogi eskabide ori norberak barik, besteak, albo-koak egin eiela nai izaten genduan. Ta bazkari azkenean izanda be, ogi geiagoren jaube egiten bagiñan, zati andia izan arren, musturtxo bat be ez zan geratzen. Dana irun-tsiten genduan.

Batzutan andra zartxo bat etorten zan ontzi garbiketara; irurogetamar urte ingurukoa. Gure zoriaz errukituta-edo, begi onez ikusten ginduzan. A etorten zanean, ez genduan izaten ogi kezkarik; etxekandreak apur bat alde egitean, berari eskatu ta nai aiña ekarten euskun.

Apaldu be bertan ardandegian egiten genduan, baiña gabeko konturik ez daukat gogoan.

Len esan dodan lez, astegunean ipinten euskuen zerbait basora eroateko; baiña igandetan ez geunkan basora joaterik, eta ttittarakada akeita baltz ta paitarragaz egoten giñan eguerdirarte.

Olantxe egin genduzan aste bi edo iru. Baiña Rafael lengusu gaztegoa besteok baiño ausartagoa, akeit-esnea eskatzea bururatu jakon igande goiz baten. Marmarka erantzun ei eutsen, esnerik ez eukela-ta au ta ori; baiña ipiñi eutsen katillu bete. Ta jaten egoala urreratu mintzakion eta ogi guztia ez eiala amaitu esan neutsan. Ta alantxe egin eban. Ta jaiko jantziagaz jantzita meza nagusitarako urten genduan, kalean, berak errez jango eban ogi koskortxo eskupetik eskupera aldatu genduan eta Teodoro'k eta biok, agirira atara barik aora eroan eta jan.

Abarketa narrua jateko aiñako goseagaz jagiten giñan maitik; baiña gerora, gosea joan-edo, aztu egiten jakun. Beintzat, kalean zerbait janari erosterik egundo ez jakun bururatu.

Asperten asi giñan Captieux'en. Ostatua be ogetak libera ordaintzen genduan, eta barriz, alogerik ez geunkan lanik egiten ez genduan, igandean-da, eta ezer ez genduan aurreratzen. Ta lengo erara nai genduala lan egin, nagusiari esan geuntsan, eta barriro Bouridens'era biurtu giñan.

## GREZI ETA DEMOKRAZIA

### EUSKALERRETIK MUNDURA BEGIRA

Euskaldunok ez dogu Grezi'rekin arreman aundirik izan. Antziña-antziña artan, salerosle yayo eta itxas-gizon trebe ziralarik greziarrek gure itxasertzera etorri ziran seguruaski, eusko-meatzetako aberastasunen billa. Euskal-lerria gaiñera gaur baiño askoz zabalagoa zan orduan. Añamendiren egoaldetik Andorrairaiño iristen zan, eta iparraldetik berriz, Lurrarteko Itxaso berberaiño. Eta an bertan bai bait zituzten greziarrek koloni edo salerosketatokiak, naitanaeizkoa eben, greziarrek eta euskaldunek, alkarrekin mintzatu bearra.

Euzkadi'ko lutelesti edo geografiari-buruzko lenen albisteak ere, greziar bateri zor dautzaguz: Jesukristo baiño 50'en bat urte leenago jaio zan Estrabon'eri.

Añamendiaren erdel izena bera greziarrek ipiña omen da, eta "suzko mendia" esan nai omen du: "Piros-Igneos". Orrela: erdia eleneraz, beste erdia lateraz. Ipui bat amaitzerakoan euskal erri askotan esan oi dabena esan bearko dogu:

"Egia ba'da, sartu dedila kalabazan  
eta atera dedila Bitori'ko plazan."

Geroago, askoz geroago, mendean, euskotarrok joan gintzazan Grezi'ra borrokalari, Naparroa'ko Koldobika Printzipearen esanera. II Karla Naparroa'ko Erregearen anaia zan Luis, eta Sizili'ko Jone'rekin ezkondu zan. Albani'ko Jaurerria berea zuala oles zegian Andre onek, eta bere emaztearentzat lurralde ura irabazteko bildu zuan Koldobika'k bere anai erregearen laguntzarekin gudarozte bat: "La Gran Compañía de Navarros" esan zitzaion gudarozte arri: "Napar-Lagundi-Nagusia". Ta Albani'ko lurrak ez ezê, artu zuan Atenas bera ere; bikain ibilli bait ziran an gudari euskotarrak.

\* \* \*

Lerro auek idazterakoan auteskundeak izan berriak dira Grezi'ko Errepublikan. Sozialistek irabazi dabez. Ez dakit nolakoak diran Grezi'ko sozialistak, baiña emengo "pesoetarrak" baiño zuzenago jokutzen ez ba'dabe, egun beltzak jasan bearrean aurkituko da, len ere edestia-zear zorion aundirik izan ez duan Grezi'ko erria.

Laterri txikia da gaurko Grezi (131.944 kilometro laukoi), eta txiroa gaiñera. Menditsua eta legorra. Aberastan urria lugañekoa, eta zearo utsa lurrazpikoa.

Orrelakoa zan Kristo-jaio aurretiko bere aberastan-aroan ere. Txikiagoa zan gaiñera orduan: gaurko Grezi'aren egoaldeko irurdana, eta, Anatatoli'ko itxas-ertzean, uri bakan batzuk.

Uri bakoitza Laterri iarea zan garai artako Grezi'an. Laterri txikiak. Danetan aundienak, Atenas'ek, bere aunditanaren erpiñean ez zituan beiñere 22.000 baiño laterkide geiago izan. Txikitasun ori da ain zuzen erri aren aintza. Edestiko miraririk arrigarrietako bat ez al da bâ ain erri kokkor batek, ogeitabi millako Laterritxo batek, ainbeste gizon aundi sortu izatea?: salerosketan, erti eta elertian, politikan, itxas-ekintzetan, guduketan..., eta zertan ez?

Maiz entzunik egongo zera, Grezi demokrazi bat izan zala. Ez da egia. Laterri iare aietan eta guziko jaurkerak izan ebezan, eta geienetan diktatura eta tirania izan ziran an nagusi. Atenas bekarrik izan zan erkala, demokrazia. Eta ez beti, aro labur batean baizik: Krist'aurretiko IV mendearen azkenean, eta V'ean, Klistenes eta Perikles jaurleei eskerrak.

—Euskal-erkala zarragoa dan? Bâ... gure Lege Zarra, egiazko erkala zan. Ala agertu yakun erdiaröan edestiaren aurrera. Noiztikoa zan ez dakigu. Askoz leenegokoa zala bai. Noiztikoa? Nork jakin Iñork besterik argira ateratzen ez ba'dau, betidandikoa: Euskal-lerria sortu zanetikoa. Aldakuntza batean pentsatzeko arrazoirik ez bait dago.

Atenas'ko erkala ez zan "erriaren aala"; erriko batzuenak bakarrik baizik. Kanpora gelditzen ziran jopu edo esklaboak, emakumeak, eta jende landerrak.

Alderantziz, Euzkadi'n ezta esklabutzarik izan; danak ziran emen aberastan berdiñekoak (landerrak danak); eta emakumeak ere bazuten politikarako eskubidea. Erdiaroko larruki batek, Arriaga'ko landetan "Araba'ko Jau-nak eta Andreak" biltzen zirala diosku. Ori izango da seguruaski, ludi guziaren edestian, lenen dokumentu femi-nista.

Atenas'ko erkala, bitartekorik gabekoa zan: "democracia directa", lateraz. Laterkide guztiak —autarkia emateko eskubidea zutenak, jakifia—, biltzen ziran "Agora" enparantzan, legegintzarako. Auxe izan zuan Atenasko erkalak akatsik okerrena. Ikustekoak izaten ziran bâ Ago-ra'n sortzen ziran iskamillak azkenean ezer ez egiteko.

Euzkadi'n, udaletakoa zan bitartekorik gabeko erkala. Ez ordea Laterrikoa. Laterria jaurtzeko, ordezkari batzuk aurketzen ebezan udalek, eta ordezkari oiek izaten ziran Batzar Orokorretan bildurik, Legegille Nagusiak.

Atenas'ko erkalaren bigarren akatsa: Jaurlaritzari almenik ez ematea. Jaurleak diktatore biurtuko ote ziralarren bildurrez ez eutsoen Jaurlaritzari bear aiñako almenik ematen. Orregaitik, beti Agora'n batzarrak egiten jardun bear izaten eben. Euzkadi'n, ordea, sendoa eta egiazkoa

izaten zan ordezkariak batzar-arteko "diputazio" edo jaurlaritzari ematen eutsoen almena.

Bazuan beste okerkeri bat ere Atenas'ko erkalak: "ostrazismoa": Edozein laterkide erbesteratzeko eskaria edozein laterkidek egin aal izatea. Ortarako auteskundea egi-terakoan "bai" edo "ez" idatzi bear zuan Agora'n laterkide bakoitzak. "Baiezko" edo "ezezko" oiek "ostra" edo txirlaundi-koskoletan idazten ebezan. Ezezkoak geiago izatea naikoa zan, besterik gabe, laterkiderik bikaiñena atzerrira jaurtia izateko. Orrela izan zan Perikles bera erbesteratua.

Almen geiegi artuta iñor diktatore egin ez zedin pentsatua eben atenastarrek "ostrazismua"; baiña Laterriarentzat txit kaltegarria urten yaken, erbesteraketa orrekin Jaurlaritzarako yayoena izan eitekezan gizonak galdu bait ebezan.

Euzkadi'ko erkala ere erkal motza izan zala entzungo dozu beñi edo beñ, Euzkadi'ko erkalan laterkide guztiek autarki bana ez ebelako. Egia. Gaurko erkalaren oiñarri "laterkidea" dan bezala, Euzkadi'ko erkalaren oiñarria

"sendia" zan. "Laterkide bakoitzari, autarki bat" diñosku gaurko erkalaren legeak. "Sendi bakoitzari autarki bat", agintzen eban Euzkadi'ko erkalaren legeak. Eta —naiz emakumezko naiz gizonezko izan—, sendi-buruak emoten eban sendi osoaren izenean autarkia.

Euzkadi zarreko era ori gaurkoa baiño okerragoa eta gaur-egunerako baliorik gabea dala?

—Baleiteke gaur-egunerako ez balio izatea. Bearbada, gure Lege Zarrak berak aldatuko eta berrituko eban era zar ura. Gure Lege Zarra ez bait zan arriaren itxurako lege aldakaitza; ezta ere, ez zan "lege" bat; "izpiritu" bat zan: legeak euskal giroan zuzenki egiteko izpiritua.

—Gure era ura gaurkoan baiño obeagoa zan edo ez jakitea, ez da gauza erreza. Ezetz esango dautsue batzuek; baiña beste askok, baietz. Danadala ez eizu aztu, ez dala, beti, "onena" dana "egokiena" izaten.

LATIEGI'TAR BIXENTE

## ZER

### ALDIZKARIA

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

**ARPIDETU ZAITE!**

**ZER**  
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1



## OLABEAGA'TA IÑAKI ANAIA († 2-II-83) (LASALLETARRA)

BEIZTEGI'TAR JON  
Gipuzkoa Kalea, 32-1-B.  
ZARAUTZ, Gipuzkoa

Oñilak 27, 1985

Martin LASA Jaunari  
Eřoma'n

Aguř Jaun aguręařia,

Ez dot uste nere au ezer atsegingaři izango yatzunik. Beste era bateko euskelduna bai naiz. Urtzi Deuna'gandik artutik eta Asaba zařen bidetik zuzenean jařaitzen aleginduko naizelako beti. Iñaki Anai jatorřak bere ayeri jařaitzen ekian legez.

Oso etxeke genduan Iñaki zana, orixe bai!

Iru gure seme bere ardurapean eziak izan ziran Bilbo'n, Jon, Sabin eta Mexico'n jayoa Josu Lartaun. Itziar alabeak Bilbo'n ta Estibalitz besteak Zarautz'en, pozik eskeintzen eutsoezan euren sukaldaritzakoak, Tere amaren ardurapean.

Josu eban bere kutuna, baita mutikoak be bera. 6 urtedun zala ekaři gendun Ameriketa'tik, an, Idaho aldean diran euzkotařak ikertu ondoren. Eta Josu'k, Iñaki Anaya ezagutu'eban orduko, beretzat jabetu nai izan eban. Ez ekian zein mailatan ezari bere jatorřikoen artean; ez eban ez aita, ez anai, ez senide... ta zertan geratuko-ta, Josu'ren adizkide batek asma-tua ontzat artu eben danok; Gazteak zařaren osabea izan bear ebala. Ořa ba, iñoiz irakuřiko ba'zenduke bere lanen artean "nere osaba", Josu gaztea dozu ori.

Gure sendi onetako asko bere olerki edo lanetan be agertzen dira: Josu'ren lenengo Jaunartzea, Ama-ma Seberi (Zařabeitia)'ren eriotzea...

Ezagutu, lenengoz, Zarautz'en egin gendun, Mexiko'ra (1952) iges egin auřetik, baiņa guda ostean. Jon zan orduan ikasteko sasoyan auřera asita, ta ara, Azpeiti'rako bidera joaten zan berarengana, lenengo Jaunartzerako ikasketa ta gertakizunak egitera. Jon onen aita —ni neu—, guda egin eta espetxean egona zan (1). Zarautz'en bizi giņan 1945'gaře-

na ezkeru. Ori ta gaiņera, España'tik etozan arapatarieri azpijaneko buřukan murgilduta zearo.

Ortik ikusi daikezu, nere bideak orduan, isileko guda latzean egozala. Iñaki Anayarenak Jaungoikoa-renganako maitasuna indartzeoetan. Ala ere ni ziņestuna nintzan ta naiz, bera be ba-zan abertzalea ta ořetan iraun eban beti il arte. Bion indařok ondoren bakařaren bila joyazan: Urtzi Jaunaren Aintzea!

Jaunak emona maite, bete, zaindu ta eutsi, euzkotař ziņestunak garanetik, jařaiten genduzen bideak bat barik alkařen alboan ba'zoazen be.

Iñaki Anai maite ořen edertasuna, bere indař eta jakintza areen gaiņetik, agertzen euskun bere otzantansunean egoan, eten-eziņa bai zan. Zenbat bider zirika-tu ete-neban —ba'zan zergaitik berotu beařa— bere abertzale sutsu izatetik, asaře-gařak ixotu nayan, bai-ņa bere anaidikoeri emondako ziņitza lotura sakona eban.

Olerkaritzan be murgilduta ebilen benetan, bere zentzunak erakusten eutsan bidetik. Nik, ostera, Britaniarař maite-ta, ořeen olergintza nai neutson agertu: neuři, atzen-bardintza, doiņu ta jokoa; bera, bai-ņa, zuzen auřera bere bařuko gařaren jařayan.

Aldi bigunetan nai okēetan, abertzale agerpene-tatik nere eskuetara eltzen ziranak, an joango ziran Iñaki Anaiarengana be, ta bere asteroko (naiz sařia-goko) gurera etorten zanerako, ba-genduzan gayak zertan aztertu ta ausnartzeko, ta AGUR'erako bere lanak biltzeko.

Abertzale oso-osoa izan da beti, ta guk, besteok, ixilean, nekez ta lořez, lortzen genduna, berak arpegi-erakusten, maitaro ta iribařez lortzen ekian, idazte-gian naiz elizan.

Nolako lan neketsu, mingaři ta asperęařia beste edozeiņentzat. "Olaxe dalako" ta "bear leukelako"ak azalduko ebazan Mezea euzkeraz erakusten aleginduzanean Bizkai'ko ziņestuneri.

Euzkeraz mezak iraun izan ba'dabe Bilbo'n, "Eřudun" zintzo bi oneek dozuz deunen arterako:

## ESKUTITZA

Iñaki Anaya, urak lez, zabalaundirako bideak zabal-tzen ekiana, ta Klaudi txanburua, sua, bide ertzeke ostopoak éreten nausi. Anton Deunaren Elizan lagile ezin aspergaria a, ta zuzendari sendoa au.

Gero, biok zaartzen aufera gindoiazela, biok pipiak jota, makaltzen, oraindik azken urte oneetan be, alkar ikusi ta itz egin al izan dogu iñoiz, ta Zarautz'en bertan be bai. Iñaki Anayaren miña, lotsa, negaía ta eroanbeaíak, nerekin aitortu al izan ba'ebazan be, ezin nik azketsi orduan. Batetik ez naizelako iñor ofetarako, bestetik Iñaki'ren ez-beaía berak, eta berak bakaíik, jasan nai ebalako.

Ara: Gaiñetik (gizonengandik) beartuta, Unantz'u'n (Irun'en), bere anaidiko gora-berak idatzi bear izan ebazenean, obena bera aiña goíoto eban euskerantooan, marxista H'z josita, idatzi eragiten eutselako. Nere asarea, zirikatzeak eta negaíak ez-eze ezta nere adaí-joteak be ez ziran izan ezef Iñaki'ren Anaidiko men-egin beaíreko zin negargaíi aren gaiñetik.

Ta alaxe il zan, bere nekaldi ori Jauna'ri eskeintzen bere Anaidiaren oberako.

Nik niñotsan nere buíukan: Gure aiton-amonegandik jaso genduna, Urtzi Jaunarengandik zuzenean datorkigu, Arek bialdutako Emoítza bat dogu. Gizonak, gaur asmatutakorik, Egi au apurtzera ba'letor, ez yatzu betegafi zuretzat, kistaí zintzo. Gizonezko agintari ofen gaiñetik dozu Jauna'k egiña, ta ezin eikezu gizonari men-egin, Jauna'ren Emoítzea ondatzeraiño. Ofenbeste obena zenduke...

Berak, baiña, "ez Jon, nere men-eginbeaía Jaunaren aufean onartu nun, nere borondate osoz, eta ofenbeste zor det...".

Aguí, Iñaki Anai jatoía, zure Anaidi ortako anai zintzo, eta Sabin'en jaíatzaile biotzbera!

BEIZTEGI'TAR JON'EK

(1) Zarautz'en, guda aufean bere anai ta ilobak (lobak) ezagutu nitun, ez baiña bera orduan.

## EUSKERA ABERASTU

Euskal esaldi jator eta polit oneik "Espetxeko negarrak" izeneko liburutik artuta dagoz, geienak beintzat. Liburu au Salbador Zapirain'ek idatzia da, "Auspoa" bilduman agertua.

Salbador'ek, espetxeetan igarotako urte latzak gogoratzen ditu:

Ondarreta, San Kristobal eta abar...

\* \* \*

"Mitiña non, an izaten giñan gu."

"Mendigoizaleak giñala-eta, gozoak joaten giñan gu." Ibamos ufanos, contentos, porque éramos mendigoizales.

"Larrutik ordaindu genduan." Muy caro lo pagamos.

"Euskadi ederra zalako etorri ziran erlemendoak eulzera." Porque Euskadi era hermoso vinieron los zánganos a la colmena.

"Frankoren aldekoak zaldizka ekarri zuten gorrotoa". (Asko, ugari esateko.)

"Altzairuak zenbat eta geiago zapaldu, ainbat eta jauzi biziagoa egiten dau." El acero cuanto más se fuerce, tanto más vivamente salta.

"Egoaize-naia zebillen." Soplabá un viento sur flojo.

"Egoaizea baiño zarragoa da ori." Eso es más viejo que Matusalén.

Espetxean "ez giñan eztaletan bizi". No vivíamos de boda (contentos).

"Egundoko biraoa bota zuan." Dijo una blasfemia horrible.

"Erria zapaldua dago, baiña ez etsia." El pueblo está aplastado, pero no ha perdido la esperanza.

"Ordaiñak jaso nai." Querer vengarse.

"Gozoak etorri ziran!" ¡De qué humor vinieron!

"Odolaz mozkortuak egozan." Estaban ebrios de sangre.

"Gu galtzeko aien amorrua." Qué rabia la de ellos para perdersnos.

"Teniente arek armen berri jakingo zuen, baiña politika kontuan ezer ez."

"Subegorri bat jarri zan teniente erre a." Se puso como una vibora aquel teniente encolerizado.

"Iru egunetan barau gorrian egon giñan." Durante tres días estuvimos sin probar bocado.

"Kukuak oker jo zigun." Tuvimos mala suerte.

"Errudun jo gintuzten." Nos declararon culpables.

"Eguna erortzera zijoan." Iba decayendo el día.

"Anka-ankari eziñik." No poder casi ni andar.

"Tiro bat sutu gabe sartu ziran errian." Sin disparar un tiro...

"Militarrak barea baiño otzagoak dira". Son más frios que un limaco. (Firmaban las penas de muerte tan tranquilos y sin inmutarse como un limaco.)

"Beldurrak erria aidean jartzeko." Para que el miedo aterrorizase el pueblo.

"Orixe gizon illuna!!!" ¡¡¡Qué hombre tan indeseable!!!

"Gu gure baserrian lanari eratsiak bizi giñan." Nosotros vivíamos atados, pegados a nuestro trabajo.

"Ibillian ibillian gure azkena espetxea." Andando de aquí para allá, al final la cárcel.

"Guk ordaindu bear larrutik besteak egiña." Tuvimos que pagar en nuestra propia persona el mal hecho de otros.

"Jan berria nintzan." Acababa de comer.

"Gaua lo betean eman nuan." Pasé la noche sin despertarme.

"Ez daukat nolanaiko gibela!!!" ¡¡¡Qué cachaza tienes!!!

Ni espetxetik irten orduko, txalak umea egingo du." (Urteak igaroko zirala esateko.)

"Militarrak geienak, lepo batetik daukate burua." Casi todos piensan lo mismo.

"Espetxean aurkitu nintzan, nagusirik gabeko txakur ustel bat bezela."

"Espetxe-zaiak deabruak ziran aragi jantzian." (Jarraituko dau.)

**ZER**

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

**Gure  
alegiña  
Bizkaiarentzat  
da.**

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO  
AURREZKI KUTXA****CAJA DE AHORROS  
VIZCAINA****Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**